




EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

2022ko deialdia Inprimaki arautua

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: El/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.

AURKEZPEN GUTUNA

RAMON ZALLO ELGEZABAL IRAKASLEARI MANUEL LEKUONA SARIA EMATEKO PROPOSAMENA



Sinatzaileak:

Miren Azkarate (*Eusko Jaurlaritzako kultur sailburu ohia eta UPV/EHUko irakaslea*),
Marian Fernandez Pascal (*IBAI Ako lehendakaria*), Fernando Bernues (*antzerki zuzendaria*), Katixa Agirre (*idazlea eta UPV/EHUko irakaslea*), Xabi Paya (*Bertsolaria. Donostia 2016ko kultur programazio zuzendari ohia*), Elixabete Garmendia (*kazetaria*), Josu Amezaga (*NOR ikerketa taldeko zuzendaria, UPV/EHUko irakaslea*), Mireia Gabilondo (*antzerki zuzendaria*), Vanesa Fernandez Guerra (*ZINEBIko zuzendaria*), Joanmari Larrarte (*ELKAR fundazioa*), Nekane Balluerka (*UPV/EHUko errektore ohia, irakaslea*), Martxelo Otamendi (*BERRIAko zuzendaria*), Mariasun Landa (*idazlea*), Josu Martinez (*zinemagilea eta UPV/EHUko irakaslea*).

Ramon Zallo Elgezabalen profilak eta obrak Manuel Lekuona Sariaren balioei erantzuten diela uste dugu (balio unibertsala, bizi-ibilbidea, ekarpenak, dibulgaziao eta unibertsitatez kanpoko ibilbidea). Alde batetik, zentzu zabalean euskal kulturari egin dion ekarpenarengatik (kulturan, komunikazioan, gizartean, politikan eta ekonomian) teorian, interpretazioan eta gizarte-implikazioan. Eta bestetik, ekonomiari eta kultur eta komunikazio politikei lotutako bere ikerketa-ibilbide aitzindari eta nazioarte mailan errekonozituarengatik, zeinetan, bidenabar, euskal errealitatearen tematikak zabaldu eta ezagutarazi dituen.

Komunikazioaren, ekonomiaren eta politikaren arloan egin duen lanak, hainbat errekonozimendu eta omenaldi jaso ditu azken urteetan, hala nola, Kulturaren Ekonomiako Latinoamerikako Batasunak 2017an eskainitakoa eta Komunikazioaren Ikertzaileen Spainiako Elkarteak 2020an eskainitakoa.

Ramón Zallo Elgezabal (Gernika 1948), Ekonomian lizentziaduna da Deustuko Unibertsitate Komertzialean eta Zuzenbidean (Deusto), Informazio Zientzietan doktorea eta Ikus-entzunezko Komunikazioaren eta Publizitatearen arloko katedradun emeritua. Irakaskuntzan eta ikerketetan ibilbide luzea egin du ekonomiaren eta kulturaren eta komunikazioaren politikaren arloan, 1978an EHUn irakasle gisa hasi zenetik. Bost seiurteko ditu aitortuta Hezkuntza Ministerioak, eta A1 maila lortu zuen UPV-EHUrako UNIQUALEk osagarrietarako aintzatetsitako tarteetan. 2019an, lehiaketa bidez, irakasle emerito izendatua izan zen.

1987an aurkeztu zuen doktore-tesia, "Kultur industrien ekonomia kritikorako oinarriak. Lan- eta balorizazio-prozesuak". Bere bertsio laburtua 1988an argitaratu zuen Akalek, "Economía de la comunicación y la cultura" izenarekin, lan klasikoa eta aitzindaria kulturaren eta komunikazioaren azterketa ekonomikoetan, bai Spainiar estatuan, bai Lationamerikan. Ekarpen hori eta ondoren eterri zena, Enrique Bustamante eta Ramón Zallo koordinatzaile zirela, "Las Industrias culturales en España" (1988) izan zen, eta Daniel E. Jonesek 1989ek esan zuenez, bertan "herrialdeko kultura- eta komunikazio-sektore guztien azterketa egin zen lehen aldiz, kontzentrazio eta transnazionalizazio ekonomiko gero eta handiagoa aztertzea helburu nagusitzat hartuta". Horrela, ordura arte argitaratu gabeko egiturazko eta sektorekako analisi ekonomikoen ikuspegi berri bat aktibatu zen (komunikabideak, edizioa, fonografia, zinema, publizitate-sektorea). Bi liburuak erreferenteak dira geroztik. Ordura arte informazio-enpresen mikroekonomia baino aztertzen ez zelarik, ordutik, komunikazio eta kulturaren ekonomia eta politikaren alorra ireki zen.

Kultura eta komunikazioa bi eremu bereizi gisa hartu beharrean, Zallo irakaslearen tratamendua beti izan da bateratua, ulertzen baitu ez dagoela kulturari komunikatu gabe, eta ez dagoela komunikaziorik eduki sinboliko edo diskurtsiborik gabe. Egiturazko azterketa ekonomikoek eta agenteen azterketak ikuspegi hori bermatzen zuten.

Goiz ohartu zen Zallo kultura- eta komunikazio-aldaketetarako, analisi ekonomikoaz gain, komunikazio-politika publikoak ere behar zirela. "El mercado de la cultura" liburua. (1992) ildo horretatik zihuan. 1992tik 1995era bitartean, aldiz, hainbat ikerlarirekin (Jose I. Aranes, F. Golvano, J.V. Idoiaga, P. Azpillaga, I. Domínguez, C. Garitaonandia, etab.) Spainiako eta Euskal Herriko kultura-industriei eta -politikei buruzko ikerketa baten zuzendaritza eta koordinazioa hartu zuen bere gain. Orduan, industrien analisi kuantitatiboaz eta politiken analisi kualitatiboaz gain, xehetasun bereziz sartu zen, historian lehen aldiz, Hego Euskal Herriko instituzio guztien kultur eta komunikazio aurrekontuen aurrekontuen analisian (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako gobernu, hiru diputazioak eta hiriburuak). Handik urte batzuetara, P. Azpillaga eta J.C. Miguel irakasleekin "Komunikabideak hemen. Egitura mediatikoa Hego Euskal Herrian" (2002) publikatu zuen: Euskal Herriko egitura mediatikoa berrikusteko liburua, izaera eraldatzaileko hainbat proposamen biltzen zituena.

Bi ikuspegi horiek – Ekonomiko/estructurala eta politikoa/komunikatiboa – eskola sortu zuten Euskal Herrian, Spainian eta Latinoamerikan. Ildo beretik, liburu kolektiboetan parte hartu du aldizka, horietako batzuk Enrique Bustamantek koordinatuta: "Comunicación y cultura en la era digital" (2002); "Hacia un sistema mundial de comunicación" (2003), "Cultura y comunicación para el siglo XXI. Diagnóstico y políticas públicas" (2007), "Industrias creativas. Amenazas sobre la cultura digital" (Gedisa 2011). Hala, Zallo lotu egiten zen britainiar komunikazioaren ekonomia politikoko eskolarekin (Graham Murdock, Nicholas Garnham), iparramerikarrarekin (Dallas Smythe, Herbert Schiller, Vincent Mosco..), frantsesarekin (Armand Mattelart, Bernard Miège), italiarrarekin (Giuseppe Richeri...), quebequesarekin (Gaétan Tremblay) edo latinoamerikarrarekin (Antonio Pasquali...).

Gaur egun, ekonomiari eta komunikazioaren egiturari buruzko azterlanek estatutu sendoa dute ikasketa-planetan, ez bakarrik UPV-EHUren fakultatean, baita Spainiako eta Latinoamerikako fakultate guztietan ere, duela hogeita hamar bat urte eremu gisa existitzen ez zenean. Era berean, UPV-EHUko NOR ikerketa-talde aktiboari atxikita dago Zallo, eta arlo horri eusten dio oraindik.

Asko dira azken urteotan Spainian eta Euskal Herrian Zallok fundatutako arlo honetan defendatu diren doktore-tesiak, horietako batzuk berak zuzenduak: J.C de Miguelek 1992an aurkeztutako "Economía industrial del sector de la comunicación. Una aplicación metodológica a los grupos de comunicación europeos"; Miren Mitxelenaren "La cultura como componente de un modelo social de territorio inteligente en la sociedad del conocimiento. El caso de la política cultural para Tolosa", 2015ean aurkeztua; Miren Maniasen "Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziazioa (2005-2012): hamaika fikziozko film-luzeren azterketa ekonomikoa" (SGAE saria)... Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzan kultura-aholkulari gisa eman zituen zortzi urteek, mugatu egin zuten ekarpen mota hori.

Hain zuzen, kultura-industrien ekonomiara eta Euskal Herriko kultura- eta komunikazio-politiketara egindako hurbilketak motibatu zuen Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako sailburuak bi legegintzalditan (2002-2009) kultura-aholkulari izendatzea (sailburuordearen profilaz). Etapa horretan atera ziren aurrera -behetik gorako dinamika parte hartzaile bat segituz- "Kulturaren Euskal Plana" I (2004) eta II (2009), bi kontratu-programa EITBrekin, tokiko LTDaren dekretua, euskal zinemaren finantzaketari buruzko dekretua, Tabakalerari buruzko txostenak, Kulturaren Euskal Behatokia, Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria (2003), Arte Eszenikoen Eskola... Amaitu gabe geratu ziren Komunikazioari buruzko euskal Legearen proiektua, FM-ri buruzko dekretua edo Historiaren eta euskal gizartearren Museoaren proiektu bat.

2015ean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskal kulturaren egoerari buruzko txostena eskatu zion ikertzaile nagusi gisa. Hala sortu zen "Balio-katea eta zeharkako ardatzak. Kultur politikako proposamenak" (244 orr). Bertan, Josu Amezaga, Kepa Sojo, Miguel Ángel Casado eta Eneko Lorente irakasleek eta Pablo Malo zinemagileak parte hartu zuten. Txosten horretan, euskal kulturaren egoera aztertzen zen eta kultur politikako neurriak iradokitzen ziren, 2016an Kulturaren Euskal Kontseiluak eztabaidatu zituenak. Horrela, jakintza bat helarazten zitzaion kultur politikako diziplinarteko talde bati.

Ikerketa-jarduera bizi hori alde batera utzi gabe, Zallorengan nabarmendu beharreko beste alderdi bat herriarekin konprometitutako intelektualaren profila da, baita arlo sozial eta kulturalean ere. Horrela, "El Pueblo Vasco hoy, cultura, historia y sociedad en la era del conocimiento" (2006) bezalako dibulgazio-liburuak burutu izan ditu, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez publikatu direnak, edo are. -Mikel Ayusorekin batera- "Euskal Herria eta bere kultura ezagutu" (2009) Eusko Jaurlaritzak diasporarako eta etorkinentzako 7 hizkuntzatan argitaratua. Era berean, artikulu askotan, eraldatzen ari diren identitate sortzaileen ideiari eutsi dio, edo identitate kulturalen, nazionalen eta politikoen arteko bereizketari, beren tempus desberdinekin.

Gai politikoetan egindako ekarpena ere zabala da. Influyentzia handiko Iburu indibiduual ugari idatzi ditu "Euskadi o la segunda transición" (1997); "El país de los vascos. De los sucesos de Ermua al segundo Gobierno de Ibarretxe" (2001), koordinatzaile gisa "El País Vasco en sus encrucijadas: diagnósticos y propuestas" (2008) edo P Ibarra, T. Ramírez de la Piscina eta T. Agirreazaldegirekin batera, euskaraz eta gaztelaniaz, "Egunkaria: amets baten egia" (2010). 2018an Txema Garcíarekin batera argitaratu zuen liburua, bi ediziota, gaztelaniaz eta katalanez, "Miradas en torno al procés. Del tablero catalán a la encrucijada vasca" (Txertoa), "Mirades sobre el procés. Del tauler catalá a la crüilla basca" (Sidillà).

Zallo frankismoaren aurkako militantea izan zen 18 urte zituenetik (1966). 1985ean Auzolan desegin ondoren antolatutako militantzia utzi zuen. Geroztik, unibertsitate ikerketarekin bateragarri eginez, politika, gizarte eta kultura arloko gaurkotasuneko analista izan da, hainbat hitzaldi emanet, aldizkari teoriko eta dibulgaziozkoetako

artikuluak idatziz, ETB2 eta Radio Euskadiko tertulietan parte hartuz (Ernest Lluchekin, besteak beste) eta hedabideetan hainbat artikulu publikatuz (Egin -etik El Correo -ra, El Mundo del País Vasco, Berria, Gara eta Deiatik pasaz). Ikuspegi arrazionalizatzailearekin beti, kolektibitatearekiko implikazioarekin eta asmo hezitzailearekin jardun du. "Grina arrazoitua" aldarrikatu ohi du. Hala, bere lumarekin zerikusia dute hirugarren espazioa eta quebectarraren erabakitzeko eskubidearen hedadura bezalako kontzeptuek, edo eta "bakea normalizazioarekin" ideiak. Garai ezberdinan zehar, herri ekimenen sustatzaile ere izan da (Elkarbide, Elkarri, Lokarri, Erabaki, Sare, Demokrazia Bai).

Hainbat gairi buruzko aholkularitza eman die talde politikoei: estatutu politiko berria, EITB erreformatzeko proposamena, bakerako politikak, Ikus-entzunezko Kontseilu baten beharra.

Zuzenbide ikasketak eginak izaki, duela gutxi (2021 eta 2022) zuzenketak egin ditu ikus-entzunezkoen euskal komunikazioaren defentsarako, 2022ko ekainean Diputatuen Kongresuan onartutako lege berrian. Gaiari buruz Cuadernos de Información y Cultura (Univ. Complutense), Plataforma Teledetodos, eta 2022aren amaieran Quaderns del Consell Audiovisual de Catalunya 50 orrialdeko txosten analitiko bat argitaratzeko du laster: "ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra aztergai".

Internetek kulturan eta komunikazioan, bereziki kultura espezifikoa duten herrialdeetan, egiten dituen aldaketengatik duen kezka Ekonomiaz-en (2011) 78. zenbakian islatu zen. Bertan, JC de Miguelekin batera, sormen-industriez aritu zen oro har, Euskal Herrian bereziki. Hiru liburu berriagotan ere jorratzen du gaia, jakintza beti Euskal Herrian aplikagai duelarik. Horietako bat (2011) "Análisis comparativo y tendencias de las políticas culturales de España, Catalunya y el País Vasco. (Metodología de Compendium of Cultural Policies and Trends in Europe)" da, Alternativas Fundazioarentzat egina. Bestalde, estatuko komunikazio mailako argitaletxe importanteenarentzat (Gedisa) bi liburu ere egin ditu azken urteotan. Lehena: "Estructuras de comunicación y cultura. Políticas para la edad digital" (414 orr) hausnarketa teoriko eta propositiboa da, autorearen kultur kudeaketa estrategikoaren bi legegintzaldiko esperientzia praktikoa duena. Bigarrena, 2016ko urtarilean argitaratua. "Cultura digital y poder" deitzen da(350 orr). Bertan komunikazioa errepasatzen du noosferaren, ziberesferaren, ekonomosferaren, geosferaren, sozioesferaren eta kratosferaren angeluetatik, euskal kasuari erreferentzia ugari eginez, azkenean aro digitalaren hasiera honetan kultura- eta komunikazio-politika jorratzeko metodologia bat proposatzeko. Material horiek gradu eta graduondokoetan erabiltzen dira, analista berriak sustatuz.

Aldi berean, eta nazioarteko taldeetan bidea eginez, ingelesez argitaratutako liburuen kapituluak idatzi ditu. Bolañon C. Mastrini G. eta Sierra F. editore: "Political Economy communication and Knowledge, A Latin American Perspective" (2012) izenekoan, kapitulu hau idatzi zuen: «New Policies for Diversity: Territorial Cultures and Risks Due to Globalization, (Hampton Press Inc, New York.)». 2015ean aldiz, Luis A. Albornoz editoreak "Power, Media, Culture jaso zuen. A Critical View from the Political Economy

of Communication" (ed. Palgrave Macmillan. NY) dagoeneko klasikoak diren komunikazioaren ekonomia politikoko egileen ekarpenak bildu zituen (Mosco, Schlessinger, Tremblay, Bustamante, Mattelart), eta horien artean Zallo, «Current Challenges for the Critical Economy of Culture and Communication» izeneko kapituluarekin


Azken urtean, garai batez Euskadiko Kutxan koiuntura ekonomikoaren analisi-txostenetan ekonomista/analista gisa hasieran izandako esperientzia ber-hartu (1974an eta 1975ean Elkarrizketarako Koadernoen monografikoetan Dossier Petroleoa) eta egiturazko analisi ekonomikora itzuli da, jaio eta bizi den komunitateari egindako ekarpena eginaz. Iaz (2021) 285 orrialdeko azterlan sozioekonomikoa argitaratu zuen, ekonomiaren, ekologiaren eta alderdi sozialen artean, Busturialdea-Urdaibai garapen ekonomikorako ildo nagusiak proposatuz: "Busturialdea-Urdaibaiko gainbehera ekonomikoa: dilemak eta proposamenak".

Ororen buru, hirurogei urte beteta, Zallok euskalduntzeko bide pertsonal bati ekin zion, eta euskaltzale komentzitu ez ezik, euskaldun praktikante ere bihurtu da geroztik.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Ramon Zallo Elgezabalek Euskal Herriari egindako ekarpen ugariengatik merezi duela, zalantzarik gabe, Manuel Lekuona saria.

CARTA DE PRESENTACIÓN

PROPUESTA PARA OTORGAR EL PREMIO MANUEL LEKUONA AL PROFESOR RAMON ZALLO ELGEZABAL



Firmantes:

Miren Azkarate (*Ex-consejera del Gobierno Vasco, profesora de la UPV/EHU*), Marian Fernandez Pascal (*presidenta de IBAIA*), Fernando Bernues (*director de teatro*), Katixa Agirre (*escritora y profesora de la UPV/EHU*), Xabi Paya (*Bertsolari. Ex-director de programación cultural de Donostia 2016*), Elixabete Garmendia (*periodista*), Josu Amezaga (*Profesor de la UPV/EHU, director del grupo de investigación NOR*), Mireia Gabilondo (*directora de teatro*), Vanesa Fernandez Guerra (*directora de ZINEBI*), Joanmari Larrarte (*ELKAR fundazioa*), Nekane Balluerka (*Ex-rectora de la UPV/EHU, catedrática de la UPV/EHU*), Martxelo Otamendi (*Director de BERRIA*), Mariasun Landa (*escritora*), Josu Martinez (*cineasta y profesor de la UPV/EHU*).

Estimamos que el perfil y conjunto de la obra de Ramon Zallo Elgezabal responde a los valores del Premio Manuel Lekuona (valor universal, trayectoria vital, aportaciones, divulgación y trayectoria extrauniverstaria) por su doble contribución tanto a la cultura vasca en sentido amplio (cultura, comunicación, sociedad, política y economía) en sus vertientes teórica, interpretativa y de implicación social, como a su pionera y reconocida internacionalmente investigación en el campo de la economía y las políticas culturales y de comunicación, ámbito en el que, además, ha difundido temáticas de la realidad vasca.

Su obra en el campo de la economía y política de la comunicación ha sido reconocida con los homenajes a la obra de toda una vida por la Unión Latina de Economía de la Comunicación Información y la Cultura en 2017 y por la Asociacion Española de Investigadores de la Comunicacion , en 2020.

Ramón Zallo Elgezabal (Gernika 1948), es licenciado tanto en Economía por la Universidad Comercial de Deusto como en Derecho (Deusto), doctor en Ciencias de la Información y Catedrático Emérito del área de Comunicación Audiovisual y Publicidad. Cuenta con una larga trayectoria de docencia e investigaciones en el campo de la economía y la política de la cultura y la comunicación, desde que ingresara como docente en la UPV-EHU en 1978. Tiene reconocidos cinco sexenios por el Ministerio de Educación y obtuvo el nivel A1 en los tramos reconocidos para complementos por UNIQUAL para la UPV-EHU, así como el nombramiento tras concurso de profesor Emérito en 2019.

Presentó su tesis doctoral en 1987 con el título de "Fundamentos para una economía crítica de las industrias culturales. Los procesos de trabajo y de valorización". Su versión resumida la publicó Akal como "Economía de la comunicación y la cultura" en 1988 obra ya clásica y pionera en los estudios económicos de la cultura y la comunicación tanto en el Estado español como en Latinoamérica. Esa contribución y la que le siguió, con Enrique Bustamante y Ramón Zallo como coordinadores, Las industrias culturales en España (1988) -como decía Daniel E. Jones en 1989- "por primera vez se hace un análisis de todos los sectores culturales y comunicativos del país teniendo por objeto fundamental el estudio de la creciente concentración y transnacionalización económica". Con ello se activó un enfoque nuevo de análisis económicos estructurales y sectoriales (medios de comunicación, edición, fonografía, cine, sector publicitario) hasta entonces inédito. Ambos libros son referentes. Se abría el campo de la economía y política de la comunicación y la cultura cuando hasta entonces solo se estudiaba la microeconomía de las empresas informativas.

En lugar de abordar cultura y comunicación como dos campos ajenos, el tratamiento del profesor Zallo siempre fue conjunto, al entender que no existe cultura sin comunicarla ni hay comunicación sin contenidos simbólicos o discursivos. Los análisis económicos estructurales y de los agentes avalaban ese enfoque.

Tempranamente percibió que para los cambios culturales y comunicativos, además del análisis económico se requerían políticas públicas de comunicación. En el libro "El mercado de la cultura. Estructura económica y política de comunicación" (1992) ya se apuntaba en esa dirección. Pero es cuando asumió la dirección y coordinación de una investigación desarrollada entre 1992 y 1995 con varios analistas (Jose I. Aranes, F. Golvano, J.V. Idoiaga, P. Azpíllaga, I. Domínguez, C. Garitaonandia...) sobre las Industrias y políticas culturales en España y el País Vasco cuando además del análisis cuantitativo de industrias y cualitativo de políticas, entra con particular detalle, y por primera vez, en el análisis presupuestario en cultura y comunicación del conjunto de las instituciones vascas (Gobiernos Vasco y de Navarra, las tres diputaciones y las capitales) con propuestas de reorientación de las políticas culturales y comunicativas. Años después y con los profesores P. Azpíllaga y J.C. Miguel abordó "Komunikabideak hemen. Egitura mediatikoa Hego Euskal Herrian", un libro de repaso a la estructura mediática del País Vasco peninsular (2002), también con propuestas de talante transformador.

Ambos enfoques -económico/estructural y político/comunicativo- crearon escuela tanto en Euskal Herria como en España y América Latina. Ha participado regularmente en libros colectivos, algunos de ellos coordinados por Enrique Bustamante: Comunicación y cultura en la era digital (2002); Hacia un nuevo sistema mundial de comunicación (2003), Cultura y comunicación para el siglo XXI. Diagnóstico y políticas públicas. (2007), Industrias creativas. Amenazas sobre la cultura digital (Gedisa 2011). Se conectaba así con las escuelas de economía política de la comunicación británica (Graham Murdock, Nicholas Garnham), norteamericana (Dallas Smythe, Herbert Schiller, Vincent Mosco.....), francesa (Armand Mattelart, Bernard Miège...), italiana (Giuseppe Richeri..), quebequesa (Gaetan Tremblay) o latinoamericana (Antonio Pasquali..).

En la actualidad los estudios de economía y estructura de la comunicación tienen ya un estatuto sólido en los planes de estudio, no solo de la facultad de la UPV-EHU sino en todas las facultades españolas así como latinoamericanas, cuando hace una treintena de años no existía como campo. Igualmente el activo grupo de investigación de la UPV-EHU, NOR, al que está adscrito Zallo, también aborda esta área.

Son muchas las tesis doctorales que se han defendido en ese campo en España y País Vasco en los últimos años, algunas de ellas dirigidas por Zallo: J.C de Miguel 1992 "Economía industrial del sector de la comunicación. Una aplicación metodológica a los grupos de comunicación europeos"; Miren Mitxelena "La cultura como componente de un modelo social de territorio inteligente en la sociedad del conocimiento. El caso de la política cultural para Tolosa" 2015; Miren Manias "Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziazioa (2005-2012): Hamaika fikziozko film-luzeren azterketa ekonomikoa 2015" (premio SGAE)... Con todo, sus 8 años de asesor de cultura en el Gobierno Vasco limitaron este tipo de aportación.

Fue precisamente la aproximación a la economía de las industrias culturales y a las políticas de cultura y comunicación en Euskal Herria las que motivaron que la entonces consejera del Gobierno Vasco Miren Azkarate, le nombrara asesor de cultura (perfil viceconsejero) durante dos legislaturas (2002-2009). En esa etapa conocieron la luz -con una dinámica participativa de abajo a arriba- el Plan Vasco de Cultura I (2004) y II (2009), dos contratos -programas con EITB, el decreto de TDT local, el decreto de financiación del cine vasco, informes sobre Tabakalera, puesta en marcha del Observatorio Vasco de Cultura, Libro Blanco del Audiovisual (2003), Escuela de Artes escénicas... Quedaron sin rematar por el camino, los proyectos elaborados de Ley vasca de comunicación, un decreto de FM o un proyecto de Museo de la Historia y de la sociedad vasca

En 2015, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le encargó como investigador principal un informe sobre el estado de la cultura vasca. "Cadena de valor y ejes transversales. Propuestas de política cultural" (244 pgs) y en el que participaron los profesores Josu Amezaga, Kepa Sojo, Miguel Ángel Casado y Eneko Lorente, así como el cineasta Pablo Malo, informe en el que se chequeaba el estado de la cultura vasca y se sugieren medidas de política cultural y que fue discutido por el Consejo Vasco de la Cultura en 2016. Se transmitía así un saber a un equipo interdisciplinar en política cultural.

Sin perjuicio de esa intensa actividad investigadora, otro aspecto a destacar al hablar de Zallo es el perfil de intelectual comprometido con el país también en el campo social y cultural. Así libros de divulgación como *El Pueblo Vasco, hoy. Cultura, historia y sociedad en la era del conocimiento* (2006) en euskera, castellano, francés e inglés o -junto con Mikel Ayuso- *Conocer el País Vasco y su cultura* (2009) en 7 idiomas, y editado por el Gobierno Vasco para la diáspora y inmigrantes. Igualmente en numerosos artículos ha sostenido la idea de las identidades generativas en transformación, o la diferenciación entre identidades culturales, nacionales y políticas, con sus *tempus* diferenciados.

Igualmente extensa es su contribución en temas políticos con una numerosa e influyente obra en forma de libros individuales: "Euskadi o la segunda transición" (1997); "El país de los vascos. Desde los sucesos de Ermua al segundo Gobierno Ibarretxe" (2001) y como coordinador "El País Vasco en sus encrucijadas: diagnósticos y propuestas" (2008) o junto con P Ibarra, T. Ramírez de la Piscina y T. Agirreazaldegi, en euskera y en castellano, "Egunkaria: amets baten egia" (2010). En 2018 publicaba el libro junto con Txema García, en dos ediciones, en castellano y en catalán, *Miradas en torno al procés. Del tablero catalán a la encrucijada vasca (Txertoa)* *Mirades sobre el procés. Del tauler catalá a la cruïlla basca (Sidillà)*.

Militante antifranquista desde los 18 años (1966) dejó la militancia organizada en 1985 tras la disolución de *Auzolan* para consagrarse, de forma compatible con su

investigación universitaria, como analista de la actualidad política, social y cultural con numerosas conferencias, artículos en revistas teóricas y de divulgación, tertulias en Radio Euskadi(entre otros con Ernest Lluch) y ETB 2 y múltiples artículos en los distintos medios (desde Egin a El Correo, pasando por Berria, El Mundo del País Vasco en su primera etapa, Deia o Gara) siempre defendiendo salidas democráticas y racionales al caso vasco. Siempre con un punto de vista racionalizador, de implicación con la colectividad y educativo. Una pasión razonada, suele decir, teniendo que ver con su pluma, conceptos como el tercer espacio o la extensión del quebequés derecho a decidir, o la idea de paz con normalización. A lo largo de las distintas épocas ha sido uno de los promotores de iniciativas ciudadanas (Elkarbide, Elkarri, Lokarri, Erabaki, Sare).

Ha asesorado a grupos políticos en temáticas como el nuevo Estatuto político, en la propuesta de reforma de EITB, en políticas para la paz, en la necesidad de un Consejo Audiovisual.

Desde sus estudios del Derecho, más recientemente (2021 y 2022) ha elaborado enmiendas para la defensa de la comunicación audiovisual vasca en la nueva y ya aprobada en junio de 2022 Ley General de Comunicación Audiovisual en el Congreso de Los Diputados. Sobre el tema ha publicado en Cuadernos de Información y Cultura (Univ. Complutense), Plataforma Teledetodos y tiene ultimado, a publicar a final de 2022 en Quaderns del Consell Audiovisual de Catalunya, un informe analítico de 50 pgs : La Ley General de Comunicación Audiovisual a examen.

Su preocupación por los cambios que introduce la era internet en la cultura y la comunicación, especialmente en los países con cultura específica, como es el caso vasco, se plasmó en el nº 78 de Ekonomiaz (2011) que coordinó junto a JC de Miguel y dedicado a las industrias creativas en general y en el País Vasco en particular. Tres libros individuales más recientes se vuelcan sobre la temática y siempre aplicándola al País Vasco. Uno de ellos (2011) un *Análisis comparativo y tendencias de las políticas culturales de España, Catalunya y el País Vasco. (Metodología de Compendium of Cultural Policies and Trends in Europe)* para la Fundación Alternativas y otros dos libros editados en la más importante editorial española en comunicación: Gedisa. El uno de 2011 *Estructuras de la comunicación y la cultura. Políticas para la era digital*, (414 pgs) es una reflexión teórica y propositiva que contaba con la experiencia práctica de dos legislaturas de gestión cultural estratégica del autor. Y el otro en enero de 2016, *Tendencias en comunicación. Cultura digital y poder* (350pgs) en el que repasa la comunicación desde los ángulos de la noosfera, la ciberesfera, la econosfera, la geosfera, la socioesfera y la cratosfera, con numerosas referencias al caso vasco, para proponer al final una metodología de abordaje de la política cultural y comunicativa en este inicio de la era digital. Estos materiales se utilizan en grado y posgrado incentivando a nuevos analistas.

Paralelamente y abriendo camino en equipos internacionales, ha escrito capítulos de libros editados en inglés. En Bolaño C. Mastrini G. and Sierra F. (eds) *Political Economy communication and Knowledge, A Latin American Perspective* (2012) escribió el capítulo relativo a "New Policies for Diversity: Territorial Cultures and Risks Due to Globalization" (Hampton Press Inc, New York.). Y en 2015 Luis A. Albornoz (editor) recogió en *Power, Media, Culture. A Critical View from the Political Economy of Communication* (ed. Palgrave Macmillan. NY) aportaciones de autores ya clásicos de la economía política de la comunicación (Mosco, Schlessinger, Tremblay, Bustamante, Mattelart...) y entre ellas el capítulo de Zallo "Current Challenges for the Critical Economy of Culture and Communication" que inicia el libro.

Con la experiencia inicial como economista/ analista en los informes de análisis de coyuntura económica en Caja Laboral (1974 y el "Dossier Petróleo" en los monográficos de Cuadernos para el Diálogo en 1975) ha vuelto de nuevo a l análisis económico estructural como contribución a la comunidad en la que nació y vive. El pasado año (2021) publicaba un estudio socioeconómico -a caballo entre la economía, la ecología y los aspectos sociales- de 285 pgs proponiendo unas líneas maestras para el desarrollo económico de Busturialdea - Urdaibai. *El declive económico de Busturialdea- Urdaibai: dilemas y propuestas.*

Cumplidos los sesenta, Zallo emprendió un camino personal de euskaldunización que le ha llevado a convertirse, además de euskaltzale, en un euskaldun practicante.

Por todo ello, creemos que, por sus numerosas aportaciones a Euskal Herria, Ramon Zallo Elgezabal merece, sin lugar a dudas, el premio Manuel Lekuona.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

3. PROPOSAMENAREN ARRAZOIAK

- 3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

INPRIMAKO HONEKIN BATERA BIDALI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Hautagaiaren argazkia
- ✓ Beste (egon ezkero)

Tokia, data eta sinadura

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobata, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez el-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: El/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.